
***E. coli* transgenikoak egin dituzte, bakterio patogenoak suntsitzeko**

Singapurko Teknologia Unibertsitatean, genetikoki eraldatu dute *Escherichia coli* bakterioa, *Pseudomonas aeruginosa* bakterio patogenoa suntsitzeko gai izan dadin. Horretarako, gainera, aurkariaren arma berberak eman dizkiote *E. coli*ari.

Hain zuzen ere, *P. aeruginosa* bakterioak proteina toxiko bat (piozina) sortzen du, bere espezie bereko bakterioei aurre egiteko. Bada, ikertzaileek proteina toxiko horren genea identifikatu dute, eta *E. coli*aren genomari sartu dute.

Horrez gain, *P. aeruginosa* bere espezieko bakterioak identifikatzeko erabiltzen duen mekanismoa ere gehitu diote *E. coli*ari. Azkenik, toxina askatu ondoren *E. coli*a bere buruaz beste egitera behartzen duen beste gene bat ere sartu diote.

Horrekin guztiarekin, bonba suizida bat egitea lortu dute ikertzaileek. Oraingoz *in vitro* probatu dute, eta emaitza oso onak lortu dituzte: *P. aeruginosa*aren % 99 hil zuen *E. coli* transgenikoak. Alabaina, ikusteko dago bizidunetan ere eraginkorra eta segurua den. ●

Besterik ezean, karena umekiaren elikagai bihurtzen da saguetan

Amak jatekorik ez duenean, sagu-umekiek kalterik izan ez dezaten, kareak bere zeluletako osagaiekin hornitzen dituela ikusi dute Cambridge Unibertsitateko ikertzaile batzuek. Ernari zeuden 8 sagu 24 orduz elikagairik gabe izan zituzten ernaldiaren erdialdean, umekiengan zuen eragina aztertzeke. Izan ere, garai horretan hipotalamoa garatzen da, oinarritzko sen eta funtzio batzuk kontrolatzen dituen garun-zatia (hala nola errai-jarduera, oreka hidrikoa eta ama-sena). Bada, ikertzaileek ikusi dutenez, plazentak bere ehunak zatitu, eta haien osagaiak erabiltzen ditu umekiek ez dezaten izan elikagai faltarik, nahiz eta amak ezer jan ez. PNAS aldizkarian eman dute egindako ikerketaren berri. ●

Eta Interneten:
<http://norteko.elhuyar.org/>

Zientzia eta teknologia Euskadi Irratiaren sintonian, Guillermo Roaren eskutik



NORTEKO FERROKARRILLA